

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Guk buruan dugun ideia, aplikazio berri bat sortzea da, izan ere, gaur egun energia garesti dagoenez, dirua aurrezteko metodo baten beharra dugu. Aplikazio honek, elektrodomestikoen ordutegia kontrolatzeko aukera emango digu, energiaren prezioa merke dagoenean alegia. Horrela, etxeko makinak energiaren prezioa ordutegi merkeenean martxan jartzeko aukera izango dugu.

Bezeroek gure aplikazioa edukiko balute, bi alderitan lagunduko liete: dirua aurreztuko lukete eta ingurunea ez kutsatzeko aukera bat edukiko zuten. Bestalde, makinak eskuz kontrolatzeko beharra alde batera utziko lukete eta soilik, aplikazioak nola funtzionatzen duen jakin beharko dute.



Nobedadea da, gure inguruan ez dutelako oraindik horrelako produkturik asmatu eta guk produktu hau hemen salduko bagenu, jende gehiagoren eskura egongo litzake. Beraz, gure aplikazioak eskuragarritasuna eskeiniko luke, berria delako eta inguruan oraindik aurkitu ezin delako.

Nahiz eta gure aplikazio bat izan eta gure aplikazioaren diseinua guk egin, denon kolaborazioa ere ondo etortzen zaigu, hau da, norbaitek gomendioren bat dukiko balu lasai asko jasoko dugu.

Gure produktuaren balio kuantitatiboari dagokionez, doakoa izango litzateke. Gaur egun aplikazio gehienak ez dira ordaindu beharrik eta hau bat gehiago denez, ez dugu ordaintzeko beharrik jarriko.

Balio kualitatiboari dagokionez, aplikazioaren diseinua hasiera batean nahiko ohikoa izango du. Ondoren, bezeroek aldaketaren bat egin nahiko balute, haien eskaerak onartzen ditugu eta kontuan hartuko ditugu.